



ORIOKOU DALA

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

Eguna: 2025eko ekainaren 26a, osteguna.

Tokia: Udalbatzarraren aretoa

Ordua: Hasteko ordua: 19:30

Bukatzeko ordua: 19:46

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Olatz Santamaria Bereziartua, Xabier Ibarguren Azkue, Ainara Munduate Iguaran, Bittor Andres Alkorta, Iñaki Macazaga Urdangarin, Lohitzune Solabarrieta Odriozola, Iosu Lizarralde Ibarbia, Nagore Rementeria Argote, Inaxio Alguacil Barrenetxea, Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi eta Jon Basurko Sarasua

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi.



Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, 2024ko ekitaldiko aurrekontuaren kontu orokorra.
- 2.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, udal-aurrekontu propioaren 6/2025 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari, kreditua transferitzeko modalitatean.
- 3.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, udal-aurrekontu propioaren 7/2025 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatean.
- 4.- Behin betiko onarpena ematea, egoki bada, Oriko Udalak Ortzaika auzoan eta Hondartza eremuan, autopista azpian, dituen autokarabana-guneen erabilera arautzen duen udal-ordenantzaren aldaketari.
- 5.- Adjudikatzea, egoki bada, Oriko Karela kiroldegirako hainbat kirol-material errentamendu-erregimenean hornitzeko eta instalatzeko kontratua.
- 6.- “Erasoen aurrean, planto!” adierazpena irakurtzea.
- 7.- Eskariak eta galderak.



BAT.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2024KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN KONTU OROKORRA.

Indarrean dagoen araudian xedatutakoa betez, jendaurrean jarri ziren 2024ko ekitaldiko urteko kontuak eta kontabilitateko egoera-orriak, bai eta 2024ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa eta horren egiaztagiriak eta Kontuen Batzorde Bereziaren txostena ere, 15 laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, haiek aztertzeke eta dagozkion eragozpenak eta oharrak idatziz formulatzeko, adierazitako 15 laneguneko epean.

Iragarki hori 2025eko maiatzaren 28ko 99. zenbakiko GAO'n argitaratu zen. Beraz, jendaurrean jartzeko epea eta eragozpenak edo oharrak aurkezteko epea 2025eko maiatzaren 29an hasi zen, eta urte bereko ekainaren 18an amaitu.

Eragozpenak edo oharrak aurkezteko epe horretan, ez zen inolako eragozpenik edo oharrik aurkeztu.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA Udal honen 2024ko ekitaldiari dagokion Aurrekontu Orokorraren Kontu Orokorra, Aurrekontu Propioak osatua.

BI.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN 6/2025 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI, KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakin du. Udalaren aurrekontu propioaren 6/2025 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta **387.400 euroko** zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2025eko ekainaren 24an emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 2025eko ekitaldi ekonomikoko 6/2025 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta zenbateko hau du: **HIRUREHUN ETA LAUROGEITA ZAZPI MILA ETA LAUREHUN (387.400 €) EURO.**



2.-JENDAURREAN JARTZEA adierazitako espedientea, arlo horri buruz indarrean dagoen araudia betez, arau hauen arabera:

a) Ikusgai dagoen lekua: Idazkaritza-Kontuhartzailletza.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeek Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesdunak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Lehen aipatutako foru-arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

HIRU.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN 7/2025 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Udalaren aurrekontu propioaren 7/2025 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta **202.672** euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2025eko ekainaren 24an emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 1/2025 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta **BERREHUN ETA BI MILA SEIEHUN ETA HIRUROGEITA BI EUROKO (202.672 €)** zenbatekoa du, 2025, 2026, 2027, 2028 eta 2029ko ekitaldi ekonomikoen kargura.



2.-JENDAURREAN JARTZEA adierazitako espedientea, arlo horri buruz indarrean dagoen araudia betez, arau hauen arabera:

a) Ikusgai dagoen lekua: Idazkaritza-Kontuhartzailletza.

b) Espedienteaz aztertze eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesdunak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Lehen aipatutako foru-arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espediente behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

LAU.-BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAK ORTZAIIKA AUZOAN ETA HONDARTZA EREMUAN, AUTOPISTA AZPIAN, DITUEN AUTOKARABANA-GUNEEN ERABILERA ARAUTZEN DUEN UDAL-ORDENANTZAREN ALDAKETARI.

Udalak espediente administratiboaren berri izan du. Espediente Orioko Udalak Ortzaika auzoan eta Hondartza eremuan, autopista azpian, dituen autokarabana-guneen erabilera arautzen duen udal-ordenantzaren aldaketari buruzkoa da.

Udal honetako Udalbatzarrak, 2025eko martxoaren 27an egindako ohiko bilkuran, besteak beste, erabaki hauek hartu zituen:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Udalak Ortzaika auzoan eta Hondartza eremuan, autopista azpian, dituen autokarabana-guneen erabilera arautzen duen udal-ordenantzaren aldaketari.

2.- JENDAURREAN JARTZEA aipatutako espediente, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedatutakoa betez, interesdun guztiek erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten, 30 laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, Udalbatzarraren aurrean. Eta ohartarazten da epe hori igarota, aipatutako erabakiari buruzko erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez



bada, aipatutako udal-arau hori behin betiko onartutzat joko dela, Udalbatzarrak beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Jendaurreko erakustaldi horretan, 2025eko maiatzaren 19an alegazio-idazki bat aurkeztu zuen P.E.K.A Estatuko Karavaning Plataformak udal-bulegoetan. 2214. zenbakia du idazkiak, eta honela dio:

1.- Udal-ordenantzaren 5. artikulua aldatzeko eskatzen da, karabanei dagozkien zenbakizko kodeak sartuta, ordenantza horrek onartutako etxebizitza-ibilgailu mota aitortzeko, honako hauek ere hala baitira:

- 4048 (750 kg edo gutxiagoko BGMko atoi eta erdi-atoi etxebizitza arina).
- 4148 (750 kg edo gutxiagoko atoi eta erdi-atoi etxebizitza, 3.500 kg edo gutxiagoko BGMa duena)
- 4248 (3.500 kg edo gehiagoko atoi eta erdi-atoi etxebizitza, 10.000 kg edo gutxiagoko BGMa duena)

Zentzu horretan, ETXEBIZITZA IBILGAILUA terminoa inklusiboa izango litzateke erabiltzaile guztiekin, ordenantza berrian zenbakizko kodeak gehitu beharrik gabe, DGTk sailkatzen baititu etxebizitza gisa erabiltzeko irizpideagatik fitxa teknikoan: XX48 zenbakia esleitzen die guztiei.

2.- Ordenantzaren 5. artikuluari atal berri bat gehitzea eskatzen da. Honela idatzita geratuko litzateke:

“Karabanak beren trakzio-buruarekin lotuta egon gabe aparkatu ahal izango dira bide publikoan prestatutako aparkalekuetan eta guneetan, baldin eta ibilgailua behar bezala ibilgetuta badago, zirkulazioa oztopatzen ez badu, eta bidearen gainerako erabiltzaileentzat arriskutsua ez bada, bereziki zainduta haren kokapena. Horretarako, Bide Segurtasunari buruzko Legearen 39.3 artikulua behar bezala betetzen dela bermatuko duten nibelazio-gailuak edo egonkortze-euskarriak erabili behar dira, karabana gidaririk gabe mugi ez dadin”.

P.E.K.A Estatuko Karavaning Plataformak aurkeztutako alegazioak, karabanak eta autokarabanak berdin tratatzeko eskatzen dutenak, ezetsi egin behar dira argi eta garbi; izan ere, gaia dela-eta indarrean dagoen araudi aplikagarrian xedatutakoa betez, Orioko Udala ez dago legez eta erregelamenduz karabanei eta autokarabanei tratamendu bera ematera behartuta, eta, hain zuzen ere, Orioko Udalak udal-kanpin bat du Orioko Antilla hondartzan, eta hark erabat asetzen ditu P.E.K.A Estatuko Karavaning Plataformak planteatutako beharrak.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta Tokiko Garapena batzordeak 2025eko ekainaren 6an emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU**



ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- OSOTASUNEAN EZESTEA P.E.K.A Estatuko Karavaning Plataformak aurkeztutako alegazioak, udal erabaki honen azalpen-zatian adierazitako arrazoiengatik, eta, ondorioz, **BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA** Orioko Udalak Ortzaika auzoan eta Hondartza eremuan, autopista azpian, dituen autokarabana-guneen erabilera arautzen duen udal-ordenantzaren aldaketari, lehenengo onarpenaren erabakian inolako aldaketarik egin gabe.

2.- ARGITARATZEA ordenantza horren behin betiko onarpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, indarrean sar dadin, GAO n osorik argitaratu eta 15 laneguneko epea igarotakoan.

BOST.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO KARELA KIROLDEGIRAKO HAINBAT KIROL-MATERIAL ERRENTAMENDU-ERREGIMENEAN HORNITZEKO ETA INSTALATZEKO KONTRATUA.

Udalbatzarrak lizitazioa adjudikatzeko proposamenaren berri izan du. Orioko Karela kiroldegirako hainbat kirol-material errentamendu-erregimenean hornitzeko eta instalatzeko kontratuaren lizitazioa adjudikatzeko proposamena da.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta kontratazio publikoko mahaiak proposatuta eta gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- KANPOAN UZTEA lizitaziotik **BODYTONE INTERNATIONAL SPORT SL (IFK: B73591109)** erakundea, baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen agiriaren 19.1 klausulak ezarritakoari jarraituz, B fitxategian (Proposamen teknikoa) sartutako agiriaren balorazioan ez baitu lortu gutxieneko puntuazioa, 20 puntukoa, alegia.

2.- ESLEITZEA BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA, SA (IFK: A48265169) erakundeari Orioko Karela kiroldegirako hainbat kirol-material errentamendu-erregimenean hornitzeko eta instalatzeko kontratua, baldintza ekonomiko-administratiboen eta baldintza teknikoen agirietan ezarritakoa betez, eta enpresa esleipendunak berak aurkeztutako proposamenean adierazitako baldintzetan.

Kontratuaren prezioa 237.126,12 eurokoa da (% 21eko BEZa barne).

SEI.-“ERASOEN AURREAN, PLANTO!” ADIERAZPENA IRAKURTZEA.



Anuska Esnal alkateak (EH-Bildu) eta Noemi Ostolaza zinegotziak (EAJ-PNV), biak elkarrekin, "Erasoen aurrean, planto!" adierazpena irakurri dute. Honela dio hitzez hitz:

"Saregile Emakumeon Etxeak ekainaren 13an jasandako erasoak ez da kontu isolatu bat izan. Iazko sanikolasetatik hasita, ugaritu egin dira Orion mugimendu feministaren eta LGTBIQ+ kolektiboaren kontrako erasoak, eta gero eta larriagoak dira.*

Mundo osoan zabaltzen ari den olatu erreakzionarioaren zantzu gero eta nabarmenagoak ikusten ditugu herrian, eta oso kezkatuta gaude.

Oriok, ordea, apustu garbia egin du berdintasunaren eta aniztasunaren alde, eta, horregatik, idatzi hau sinatzen dugun elkarte eta eragileok hauxe esan nahi diegu, ozen, erasotzaileei: bakarrik zaudete. Alferrik ari zarete gehiengoaren nahia oztopatu nahian.

48 ordu barru lehertuko dira San Pedro festak eta mezu bateratu argi hau eman nahi diegu herritar guztiei: festetan ez dugu eraso matxistarik onartuko, ez dugu jazarpenik onartuko, eta, erasoen aurrean, planto egingo dugu.

Herriko festak guztionak dira eta guztiok dugu eskubidea bakean ospatzeko, lasai, aske eta alai. Denon ardura da mezu hau zabaltzea eta, nork bere lekutik, gure aletxoa jartzea hala izan dadin."

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

ZAZPI.- ESKARIAK ETA GALDERAK

Ez zen eskari edo galderarik izan.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoenez, alkateak osoko bilkura bukatutzat emateko agindu du, gaurko arratsaldeko zazpiak eta berrogeita bost direla. Nik, Udaleko idazkariak, ZIURTATZEN DUT ETA FEDE EMATEN DUT.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,